



K.a. IV. mendera bidaiatzea proposatzen dizugu, Bigarren **Burdin Aroko herrixka gotortu** batera. Bolunburuko kastroa ia-ia bere horretan mantendu da gaur egun arte. Kadagua ibaiak zeharkatzen duen Saltzedo Haraneko muino txiki batean dago, 320 metroko altueran.

Gotorlekuak **4.000 m²**-ko azalera hartzen du, harresiz inguratutako esparru batek eta muinoaren hegoaldeko fronte osoa zeharkatzen duen kanpoko hobi batek mugatuta. **"Itxitura"** honi **Bolunburuko haitzak** ematen duen defentsa naturala gehitzen zaio iparraldeko aldean.

Harresia **harlangaitzezkoa** da, eta batez beste hiru metroko zabalera eta bost metrotik gorako altuera izan zuen jatorrian. Hego-ekialdeko muturrean kastroak izan zuen **ate bakarra** dago. Etxebizitzak oinplano angeluzuzeneko **etxolak** ziren, material galkorrez eginak. Haien egituratik, zimenduen hondarrak besterik ez dira gelditzen. Halaber, **estalpe, tailer eta biltegi** izan ziren beste estruktura batzuk identifikatu dira ere.

Kastroko biztanleen eguneroko bizitza nolakoa zen ulertzeko aukera ematen digu multzoak. Gaur egun badakigu herrixkaren **ekonomia nahiko dibertsifikatua** zela. **Abeltzaintzan**,

iraupeneko nekazaritzan (zerealen eta lekadunen laborantzian), basoko produktuen bilketan (etxebizitzaren barruan ezkurra kiskali ugari aurkitu dira) eta **burdinaren metalurgian** oinarritzen zen. Baina tokiko berezitasun handiena, beharbada, hareharriz egindako **esku-errota** ugari agertu izana da.

Gainerakoan, ingurueto toponomia adierazgarria da, **"sorginak"** aipatzen baititu (Zallako jentilizioetako bat dena, hain justu). Baliteke kondairak herrixkaren biztanleei lotuta egotea, eta **Sorginen Zelaian** dute adierazpenik handiena, bertan akelarreak egiten eta biribilean dantzatzen omen baitzuten ibaiaren ondoan.



Non jan?

Aretxaga

Tel.: 626 163 542

El Porron

Tel.: 946 390 754

www.restauranteelporron.com

Cervecera Zalla

Tel.: 946 39 06 21

www.cervecerazalla.com

Non lo egin?

Hotel Ibarra

Tel.: 618 789 720

www.hotelibarrazalla.com

Pensión Txikote Ostatau

Tel.: 946 390 178

Bisitatu txakolin-upategi bat

Virgen de Lorea

Tel.: 629 455 620

www.bodegasvirgendelorea.com

Txakoli Txabarri

Tel.: 658 728 865

www.txakolitzabarri.com

Erosi Zallako tipula morea

Ana Mari Llaguno

Tel.: 619 471 700

Mertxe Vivanco

Tel.: 946 390 820

Bisita gidatuak Bolunburuko kastroa

Alboan

Tel.: 605 757 420

www.alboanenkarterri.com

Leykatur

Tel.: 616 498 621

www.leykatur.com

Nola lortu?



Bizkaibus

A0651 Bilbao-Balmaseda
Geltokia **Ei Longarren**



Feve

Bilbao - Balmaseda
Ibarrako atsedenekua

